

1/11

irizpena

BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO
ERAKUNDEEI BURUZKO

Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbo, 2011eko urtarrilaren 21ean



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 1/11

I. SARRERA

2010. urteko abenduaren 20an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ekonomia eta Ogasun Sailaren idazkia sartu zen. Beraren bidez, txostena eskatu zuten Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Aurreproiektuari buruz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Berehala dokumentuaren kopia bidali zaie Batzordearen Osoko Bilkuraren kide guztiei bere proposamenak eta iritzia igorri eta hauen berri bidezko Lan Batzordeari emateko xedez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduko Araudian ezarritakoaren arabera. 2011. urteko urtarrilaren 17an Ekonomia Garapeneko Batzordea bildu da eta hartutako erabakietan oinarriturik Irizpen Proiektu hau plazaratu da Batzordearen 2011ko urtarrilaren 21eko Osoko Bilkurari aurkezteko eta gehiengoz onartzen da.

II. AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuak, bere 10.23 artikuluan, Autonomia Erkidegoari eskumen eskusiboa ematen dio Gizarte Segurantzari sartu gabeko Mutualitateen arloan. Aipatutako eskumena betez, Eusko Legebiltzarrak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legea onartu zuen, eta lege-esparru berria ezarri zuen, aurrekoa ordezkatzeko zuena Mutualitatearen kontzeptuan oinarriturik. Honen bidez autonomia erkidegoan bazkideak bere bizitza, baliabideak edo jarduera arriskuan jar dezaten gertaeren aurrean babesteko azken xedea duten era askotako irabazi asmorik gabeko erakunde ugarien lege-esparrua zabaltzea bilatzen da.

Ekainaren 3ko 2003/41 EE Zuzentaraua, enpleguko pentsio-fondoaren jardura eta ikuskapenari buruzkoa, enplegu, sektorial deitutako pentsio-fondoak edo enpresek sustatutakoak eta norberaren konturako langileen partaidetza ere ahalbidetzen dutenak eratzen dituzten erakundearen finantzaketako kaudimena eta kudeaketa eraginkorra laguntzen saiatzen da.

Testuinguru honetan, 2006. urteko urtarrilean, Eusko Jaurlaritzak “Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Plana” onartu zuen, autonomia erkidegorako Gizarte Aurreikuspen Osagarriko eredua, erronka sozialetarako egokia dena, ezartzeko eta indarreko esparrua Europako Batasunaren zuzentarauetara egokitzeko epe luzerako gogoeta estrategiko gisa. Plan honetan hainbat jarduketa ezarri ziren, lehentasunez enpleguko sistemak sendotzera zuzenduta, aurreikuspen osagarriak orain ez dauden eta etorkizunean hori gehiago behar dezaketen sektoreak erantsita, lege-esparrua eta pizgarri nahikoak sortzera bideratutako hainbat neurriren bitartez. Planak, gainera, jotzen zuen zehaztutako jardun-lerro batzuen tratamenduak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (aurrerantzean BGAE) esparru araupetzailea egokitzea eskatzen zuela, era berean Europa eta estatuko araudira egokitu behar dena.

Orain kontsulta egin diguten legegintzako ekimenaren xedea, hain zuzen ere, *“gizarte aurreikuspen osagarria Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarren artean orokortzen laguntzea, sistema kolektiboak eta enpleguak bereziki sustatuz, eta araudi araupetzailea argitu eta eguneratzea, hurbilen dauden lege multzoak, Europa zein estatukoak, sortzen joan diren kontzeptuak eta erregulazioak erantsita”*.

III. EDUKIA

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Aurreproiektua honakoek osatuta daude: Zioen azalpena, XVI. kapitulutik sartutako 78 artikulua, hiru xedapen gehigarri, hiru iragankor, indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen. Jarraian atal bakoitzaren edukia laburbilduta dago.

Zioen Azalpena

Xedapen hau denbora luzez legegileak ezarri zituen asmoak egoki bete dituen eta, momentu hartan, Europan pentsioen sistema osagarriak deitutakoak garatzeko beharrezko arretarik gabeko eremu bat estaltzea zekarren arau-gorputza izan denaren beharrezko erreformaren ondorio gisa aurkezten da.

Lege honek gizarte aurreikuspen osagarria Euskal Autonomia Erkidegoko hiritarren artean orokortzen lagundu nahi du, sistema kolektiboak eta enpleguak bereziki sustatuz, eta araudi araupetzailea argitu eta eguneratu, hurbilen dauden lege multzoak, Europa zein estatukoak, sortzen joan diren kontzeptuak eta erregulazioak erantsita. Halaber, Erakundeen kudeaketaren gardentasuna, eraginkortasuna, kaudimena, berrikuntza eta profesionaltasuna indartzea ere bilatzen du, baita botere publikoen tutoretza eta kontrolerako mekanismoak ere hiritarren interesak babesteko.

Gauzen izaeragatik beragatik Gizarte Segurantzaren eremu osagarria lanharreman kolektiboan esparruan negoziagarri dela onartuta, kontsideratu dugu izaera, ezaugarriak, kontzeptuak, subjektuak edo objektua bezalako alderdiak ezin direla aldatu negoziatutako eremuko erabilgarritasunaren bidez. Aitzitik, kontsideratu dugu gizarte aurreikuspen osagarriaren figurei dagokienez zuzeneko erregulazioaren barruan sartzeko delako, momentu bakoitzean komenigarriena dela dirudien zerga tratamendua emanda.

EAE enregistratutako BGAEak berezko eta baliozki eratu ondoren erakunde eta instituzio sustatzaileetatik bereizitako nortasun juridikoa duen subjektu arduratsu gisa agertzen dira, eta horrek ahalbidetu du Erakunde hauek garrantzi sozial eta ekonomia-finantzako itzeleko pertsonifikazio juridikoa izatea.

Lege honen esparruaren barruan ere sartzeko dira, borondatezko gizarte aurreikuspenentzat hartzen direlako, elkarlaguntzako sozietate zibilak, kofradiak, mutualitate-sozietateak eta ermandadeak, historian zehar Euskal Herriko nekazaritza, arrantza eta abeltzaintzako esparruan existitu direnak eta arrisku-egoera indiferentziatu jakin batzuetarako estaldura espezifikoak ezartzearen oinarri historiko tradizionala izan direnak, baina izaera sozialaz, etorkizunean xede izan daitezkeen berezko erregulazioak xedatzen duena baztertu gabe. Erakunde hauek, asko Erkidego honi transferituak Estatuak arlo honen gainean egindako eskualdatzeen momentuan, gaur egun Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen izenarekin inskribaturik daude, baina sute edo ehorzketaren kasuan prestazioak ematen dituztenek etorkizunean izendapen historiko tradizionalak hartu ahal izango dituzte, horrelakorik egonez gero.

Aurreko guztia adierazita ere, ezin dugu ahaztu EAEk nahitaezko Gizarte Segurantzaren sartu gabeko mutualismoaren arlo honetan duen eskumen eksklusiboa ñabartu dela aseguruak antolatzeko oinarrien estatuko araudiak Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateen oinarriak araupetu dituen momentutik, nahitaezko Gizarte Segurantzako sistemaren osagarria den borondatezko modalitate aseguratzailea egiten duten erakundetzat hartzean.

Egoera honek, Auzitegi Konstituzional eta Auzitegi Gorenaren dotrinak abalaturik, ekarri du ezen, erakunde hauetakoren batek jarduera aseguratzailea egiten duenean, 2003/41/EE Zuzentarauak erregulatzen duen esparrutik kanpo, jarduera horri dagokionez, aseguruaren antolamenduari oinarritzeko izaera hori, momentu bakoitzean, duten aginduak aplikatuko zaizkiela.

Horrek guztiak, errealitate sozialak inposatzen dituen eskariekin batera, indarreko araudia eguneratzea aholkatzen du, legean jasotako kasuak Foru Ogasunen esparruaren barruan eta Kontzertu Ekonomikoaren barruan zerga tratamendu zuzenera behar bezala egokitzearekin batera, Europako Zuzenbidearen eta estatu eta autonomiako barneko Zuzenbidearen esparruan egite on legegileak eskatutako berritasun guztiak erantsita, araupetutako gaiaren nukleo estruktural eta funtzionala den horretan.

I - Xedapen orokorrak (1. eta 2. artikulua)

Lehenik eta behin, Legearen xedea zehazten da, EAEko esparruaren barruan borondatezko gizarte aurreikuspena edota Gizarte Segurantzaren osagarria egiteko xedez eratuta dauden eta eratzen diren BGAEak araupetzea dena, hain zuzen, arauaren aurreikusitako kontingentzien estaldura egiteko.

Ondoren, borondatezko gizarte aurreikuspenaren erregimenaren oinarritzeko printzipio informatzaileak aurkezten dira: Bazkide diren pertsona guztien eskubide eta betebeharren berdintasuna, erakundeetan irabazteko asmorik ez egotea, kudeaketaren gardentasuna, bere gobernu-organoen egitura eta osaera demokratikoa, doakotasuna aipatutako or-

ganoetan parte hartzeari dagozkion eginkizunak burutzean, mugarik ez egotea bazkide izan ahal izateko eta, azkenik, baliabideak kudeatzearen eraginkortasuna, efikazia eta berrikuntza.

II - Aplikazio-eremua (3. eta 4. artikulua)

Kapitulu honek arauaren lurralde-eremua eta eremu pertsonala mugatzen ditu. Lehenik eta behin, xedatzen da Legearen edukia Gizarte Segurantzaren barruan ez dauden BGAE guztiei, eta bere federazioei, aplikatzen zaiela, betiere honekin bat etorri izateko badaude edo eratzten badira eta bere helbide soziala, eragiketa-eremua eta konpromisoen bereganatzea, edo arriskuen lokalizazioa egonez gero, EAEn baldin badute.

I/11 

Horren ostean esaten da sistemaren barruan jasota daudela hauen barruan bazkidearen izaera edota pertsona onuradunaren izaera legez hartzen dutenak eta BGAEak negoziazio kolektiboaren ondorioz sortzen direnean honen gainean lan-arloko legeriak ezartzen duena beteko dela.

III.- Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak (5-7 bitarteko artikulua)

Hauek *“irabazi-asmorik gabe, bere bazkide arruntan eta pertsona onuradunen alde estaldura egokia, Lege honetan ezarritako kontingentziarako, ematera zuzendutako aurreikuspeneko jarduera egiten duten erakunde gisa definitzen dira”*, eta hurrengo modalitate hauetan sailkatu daude:

- Estalitako kontingentziei kasu eginez gero: Kontingentzia pertsonalak estaltzen dituzten BGAEak (23. artikulua) eta beste kontingentzia mota bat estaltzen duten BGAEak, hala nola ondasunetan hainbat gorabeheren ondorioz gertatutako kalteak eta zehazki ehorzketaren ondoriozko gastu eta zerbitzuak (25. artikulua).
- Bere bazkideen arteko lotura eta izaerari kasu eginez gero: banako erakundeak (bazkide sustatzaile edo babesle gisa finantzako erakundeak dituztenak), enpleguko erakundeak (bazkide babeslearekin lan-harreman edo antzekoa duten edo eduki duten kideak dituztenak,

eta sartzeko kausa erabakigarria negoziazio kolektibo, enpresako hitzarmen edo enplegatailearen alde bakarreko erabakian lortutako akordioak izan direnean, bai eta elkarren artean bere lanbidearekin lotutako loturaren bat duten kideak dituzten erakundeak ere), elkartutako erakundeak (bere kideek elkarren artean elkarteko lotura ez laboral edo profesionala baldin badute) eta, azkenik, erakunde indeferentziatuak (lotura ez laboralak dituzten kideak dituzten eta kontingentzia ez pertsonalen estaldurako jarduerak garatzen dituztenak).

IV - Gizarte Aurreikuspeneko Planak (8-10 bitarteko artikulua)

1/11 *i*

Esaten da gizarte aurreikuspeneko planak direla kontratu, elkarte, eratzeko egintza edo arauemailea diren eta ekarpen erregular eta prestazioen erregimena zein eskubidea aitortzeko, erretiroaren kontingentziarako, baita, egonez gero, heriotza, mendekotasun, baliaezintasun, iraupen luzeko langabezia edo eritasun larrirako ere baldintzak instrumentatu eta araupetzen dituzten akordioak. Gizarte aurreikuspeneko planak prestazioen araudietan formalizatuko dira eta kapitalizazioko finantza eta aktuariotzako sistemak aplikatuko dituzte hauek zehazteko.

Gizarte aurreikuspeneko planak, lehenik, bere bazkideen arteko loturaren arabera, banako, enplegu eta elkartutako planetan sailkatzen dira. Halaber, ekarpen eta prestazioen erregimenaren arabera, ekarpen definituko planetan (bazkideen ekarpenaren zenbatekoa alde aurretik zehaztuta duten horiek), prestazio definituko planetan (bazkide pasiboek edota pertsona onuradunek jaso beharreko prestazioen zenbatekoa zehazten duten horiek) eta plan mistoetan (aurreko bi aukerak aldi berean uztartzen dituzten horiek) sailkatzen dira.

V - BGAE eta lehentasunezko Gizarte Aurreikuspeneko Planak (11-15 bitarteko artikulua)

Lehentasunezkoen kalifikazioa edukiko dute lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planek bakarrik osatzen duten BGAEk. Plan bati lehen-

tasunezkoaren kalifikazioa emango zaio hurrengo eskakizun hauek betetzen dituenean:

- a) Ez-diskriminazioaren printzipioa: gutxienez urtebeteko antzintasuna duten langile guztiei pertsona bazkide oso gisa sartzea bermatu behar zaie, baita izaera bereziko lan-harremana duten langileei ere, edo kolektibo osoari langile autonomoak direnean.
- b) Gutxieneko babes-ekintza: Honek gutxienez erretiro, alarguntza edo zurtasuneko pentsioa eragiten duen heriotza eta lan-harremana edo baliokidea amaitzea dakarren baliaezintasun edo ezintasun iraunkorreko kontingentziak barne hartuko ditu.
- c) Ekarpen partekatuak: Ekarpinak negoziazio kolektiboaren bidez zehaztuko dira eta, oro har, bazkide babesle eta bazkide osoen artean partekatu beharko dituzte.
- d) Mugikortasuna: Eskubide ekonomikoen mugikortasuna lehentasunezko enpleguko gizarte aurreikuspeneko beste plan batzuetara bakarrik egin ahal izango da.
- e) Erreskatea ezinezkoa: Araudietan ezarritako kontingentzien estaldurari bakarrik kasu egingo zaio, eskubide ekonomikoak aldeztatik itzultzeko aukerarik gabe.
- f) Prestazioak: Erretiro, heriotza eta lan-harremana iraungitzea dakarren baliaezintasun edo ezintasun iraunkorragatiko prestazioak jasoko dira estatutu edo araudiek ezartzen dutenarekin bat etorriz, eta, oro har, bere aitortze eta ordainketa biziarteko errenta moduan egin behar dira.
- g) Jarraipeneko batzordea: Enpleguko gizarte aurreikuspeneko plana instrumentatzen duten eta lehentasunezkoaren kalifikazioa nahi duten akordioek osaera paritarioa duen jarraipen-batzorde bat eratzea aurreikusi beharko dute, plan hori bakarrik eta gobernu-batzorde pa-

ritarioa dituen lehentasunezko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde batean integratutako plana bada izan ezik.

- h) Izena: Artikulu honen eskakizunak betetzen dituzten enpleguko gizarte aurreikuspeneko planek bere jatorrizko izenari lehentasunezkoaren izen gehigarria erantsi beharko diote.

Dagoeneko eratuta dauden eta lehentasunezkoaren kalifikazioa lortu nahi duten gizarte aurreikuspeneko planei dagokienez, hauek aipatutako kalifikazioa eduki ahal izango dute gutxienez, kolektibo klase bakoitzerako aurreikusitako terminoetan, aurretik aipatutako a), b), d), f), g) eta h) le-tren eskakizunak betetzen baldin baditu. c) eta e) lerrokaden eskakizunak betetzen ez dituztenean, lege hau indarrean sartzeko momentuan aplikagarri diren eta ezarrita duten ekarpenen sistemarekin edo gizarte aurreikuspeneko planaren araudietan jasotako eskubide ekonomikoen erreskatearekin jarraitu ahal izango dute.

Lehentasunezko Gizarte Aurreikuspeneko Planaren Jarraipen Batzordeari dagokionez, ezartzen da erabakiak emandako botoen gehiengo simple bidez hartuko direla, lehentasunezko enpleguko gizarte aurreikuspeneko planen araudiak onartu eta aldatzeari buruzkoak eta plan egokiak lekuz aldatu, bat egin, banandu eta iraungitzeari buruzko erabakiak izan ezik, hauek emandako botoen bi herenen gehiengo bidez hartu beharko baitira.

VI - Bazkide eta pertsona onuradunei buruz (16-23 bitarteko artikulua)

BGAEEtan hurrengo bazkide-klase hauek egon daitezke:

- a) Bazkide sustatzaileak: BGAE baten sorrera eta eraketan eratzeko borondatez eta hasiera bateko ekarpenez parte hartzen duten eta bere gobernu-organoetan esku hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- b) Bazkide babesleak: bere jardueraren bidez eta erabakitako ekarpe-
nez BGAE edota gizarte aurreikuspeneko plan baten garapen eta

mantentzean parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, zuzeneko etekinik lortu gabe, baina bere gobernu-organoetan parte hartuta.

- c) Bazkide oso edo arruntak: beraientzat edo bere onuradunentzat prestazioren bat lor dezaketen pertsona fisikoak, betiere Lege honek ezarritakoarekin bat etorritz. Gauzen gaineko arriskua egonez gero, arriskuan dauden ondasunen gaineko eskubide edo interes legitimoa dutenak. Bazkide arrunten hurrengo modalitate hauek egon ahal izango dira: aktiboak (beraientzat edo bere onuradunentzat prestazioren baterako eskubidea dutenak beraiek edo hirugarrenek bere izenean egindako ekarpen ekonomikoen bidez), pasiboak (bazkide aktiboak izan direnak eta prestazioaren zuzeneko titularrak izatera igarotzen direnak) edo etendako bazkideak (bazkide arruntak izan diren arren, ez ekarleen egoeran daudenak).

Era berean, onuradunak izango dira, kausatzailearekin duten harremanagatik, kontingentzia gertatu ondoren prestazioaren titular deribatuak izatera igarotzen direnak.

BGAE bateko bazkideek zein pertsona onuradunek, berriz, gobernu-organoetan, Erakundearen estatutueta ezartzen den moduan eta araudian finkatzen diren parametroei kasu eginez, parte hartzeko edo ordezkatuta egoteko eskubidea dute.

Gainera, gizarte aurreikuspeneko planetan honako hauek eskubide ekonomikoak sortzen dituzte:

- a) Ekarpene definituko gizarte aurreikuspeneko planetan bazkide arruntari dagokion kuota parte, ekarpen, errendimendu eta gastuen arabera zehaztuta, araudiaren barruan ezarritako terminoetan.
- b) Prestazio definituko gizarte aurreikuspeneko planetan kasu bakoitzean egokia den prestazioa, gertaera eragilearen arabera, estatutu sozialek eta erakundearen araudiak araupetutakoarekin bat etorritz.

- c) Prestazio definituko lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetan, erabilitako aktuariotzako sistemarekin bat etorritik dagokion hornidura matematikoa.
- d) Gizarte aurreikuspeneko plan mistoetan ezarritako ekarpen eta prestazioen erregimenaren arabera egokia den aurreko atalen erregimena aplikatuko da.

Bazkideen betebeharreri dagokienez, honakoak aipatzen dira: gobernu-organoek baliozki hartutako erabakiak betetzea, bere estatutu edo araudietan ezartzen diren ekarpenak efektibo egitea eta BGAEk bere funtzionamendu zuzenerako eta bazkidearen eskubideak gauzatzeko eskatzen dizkien datu guztiak eman eta eguneratzea.

Erretiroko kontingentzia ekarpen definitukoa den BGAE baten bazkideek, berriz, bizi-zikloaren inbertsioko estrategiak egokiago bete ahal izateko xedez, inbertsioaren profila aldatu eta arrisku maila ezberdineko aktiboak dituzten Erakunde horren plan guztien artean aukeratzeko aukera edukiko dute. Eskubide hau araudiaren barruan modulatu da, bazkidearen adina, inbertsioko estrategiak, bazkideen egoera, kolektiboaren ezaugarriak edo antzeko beste irizpide batzuk kontuan hartuta.

Halaber, eskubide ekonomikoak mobilizatzeko aukera ere jasotzen da, horrela bada, gizarte aurreikuspeneko planak barne hartzen dituzten BGAEek bere estatutuetan eskubide hau ezarri eta bere araudietan garatuko dute Lege honetan eta garatzeko araudian ezartzen denarekin bat etorritik.

Banakako eta elkartutako gizarte aurreikuspeneko planetan, kontingentzia gertatuta, bazkide arrunt pasiboek edo pertsona onuradunek eskubide ekonomikoak jaso beharreko prestazioaren zenbatekoaren gaineko berme edo konpromisorik ez baldin badago bakarrik mobilizatu ahal izango dituzte. Enpleguko aurreikuspeneko planetan Erakundearen estatutuetan ezarritakoa beteko da eta eskubide ekonomikoak lan-harremana edo baliokidea hautsi ondoren bakarrik mobilizatu ahal izango dira.

VII - Kontingentziak eta prestazioak (24-29 bitarteko artikulua)

Lege honetan BGAEetarako ezarritako gizarte aurreikuspeneko erregimenaren ekintza babeslea hurrengo kontingentzia pertsonal hauek zabalduz da: Erretiroa, ezintasun iraunkorra edo lanerako baliabiztasuna, heriotza, mendekotasuna, iraupen luzeko langabezia eta eritasun larria, 24. artikulua ezartzen dituen terminoetan. Halaber, BGAEren ekintza babeslea jaso ahal izango dute, prestazioak emanez, aldi baterako ezintasunek, enplegurako laguntzek, jaiotza edo adopzioak, ezkontza edo izatezko bikoteak, osasun-gastuek, ikasketa ofizialek eta osasun-laguntzak.

Azkenik, bazkidearen etxebizitza, puska, abere, uzta,...eta abarretan gertatzen diren kalte-galeren kontingentziak edo ehorzketaren ondoriozko gastu edo zerbitzuak bakarrik estaltzen dituzten BGAEak egotea ere jasota dago, gertaera hauen aurrean prestazioa emanda.

Prestazioak, oro har, diruzkoak, izaera pertsonal eta transferiezinekoak izango dira, eta bazkide pasiboari edo pertsona onuradunari ordainduko zaizkio. Ez dute inolaz ere pentsio publikoaren izaera edukiko, eta ondorioz ez dira pentsioengatik konkurrentziako erregimenari lotuta gelditzen. Hauek jasotzeko eskubidea sortzen da gertaera eragilea jazotzen den momentutik, betiere eskabide egokia egiten bada.

VIII - BGAE eratu, inskribatu, bat egin, zatitu, desegin eta likidatzea (30-41 bitarteko artikulua)

BGAE eratu ahal izateko, beharrezkoa da eratzeko biltzarra egitea, sustatzaileak edo sustatzaileek osatuta, eta bertan eraketa aho batez onartzea eta bere estatutuek, berriz, bi herenen gehiengo kualifikatuz onartzea. Aipatutako biltzarrak batzorde eratzailerak izendatuko du Erakundea behin betiko eratu eta erregistratzera zuzendutako prozedura eta administrazioa egintzak egin ditzan.

BGAE eratzeko gutxienerako eskakizunak bazkide sustatzaileak egotea, mutua-fondoa edo eratzailerak osatzea eta Estatutuak onartzea dira. Azken hauen gutxienerako edukia arau honen 31. artikuluan zehazturik dago. Ho-

rreren ostean, BGAEk gaitasun juridiko osoa eta jardutekoa hartuko ditu baimentzeko administrazioko ebazpen egokia lortzen duenean eta Euskadiko Gizarte Aurreikuspeneko Erregistroan inskribatzen dutenean.

Ondoren, arauak BGAEren Estatutuei dagokiena araupetzen du. Hauek, Biltzar Eratzailean onartutakoan, Erakundearen funtzionamendua zuzentzen duen arau juridiko gisa egituratzen dira. 33. artikulua bere gutxienezko edukia deskribatzen du, eta horren barruan erakundearen izen eta helbidea, jarduera hasteko eguna eta aurreikusitako iraupena, babesteko ekintzaren zehaztapena eta ekarpen eta prestazioen erregimena, bazkide eta onuradunen klaseak eta ezaugarriak, bai eta bere eskubide eta betebeharrak ere, sartzeko edo parte izateko erregimenak eta ondarezkoa, bere gobernu-organoen deskribapena, erantzukizun eta eskumenak, diziplinazko erregimena eta erabakiak aurka egitekoa eta administrazioko erregimenaren erregulazioa eta gastuak, besteak beste.

Halaber, biltzar eratzailearen aktarekin batera Erakundea sortu eta bere estatutuak onartzearen euskarri izan den ekonomia-finantzako azterlana, eta aktuariotzakoa egonez gero, aurkeztuko da. Aipatutako azterlanak finantzatzeko sistema jasoko du eta eman beharreko prestazioak eta bere zenbatekoa zehazteko arauak baloratuko ditu.

Jarraian, Legeak BGAE bat egin, zatitu eta desegiteko kasuetarako baldintzak aurreikusi eta araupetzen ditu. Horrela bada, azkeneko kasu honetan, Erakundea likidatzeko prozesuan egin beharreko urratsak, bere aktiboen balizko adjudikazioa eta erregistroko ezeztapena jasotzen ditu.

IX - Gizarte aurreikuspeneko planen sorrera, integrazioa, mugikortasuna eta azkentzea (42-46 bitarteko artikulua)

Gizarte aurreikuspeneko plana sortzeko beharrezkoa da sustatzaileak edo sustatzaileek legez hartutako erabakia egotea, eta bertan, aho batez, sorrera onartzea eta, bi herenen gehiengo kualifikatu bidez, formalizatutako araudiak onartzea.

Gizarte aurreikuspeneko planek, ondorioak eduki ditzaten, aldez aurretik Eusko Jaurlaritzaren eskudun administrazioiko organoaren administrazioiko baimena eduki behar dute eta Euskadiko BGAEren Erregistroan inskribatzea beharrezkoa da. Horretarako, plana integratzen den BGAEren gobernu-batzarrak instantzia horren aurrean plana sortzeko erabakia, araudiak, plana Erakundearen integrazioa onartzen duen eta araudiak baliotzatzen duen gobernu-batzarraren akta, eta ekonomia-finantzako azterlana, edo aktuariotzakoa egonez gero, eman beharreko prestazioetan oinarriturik.

Araudiak gutxienezko eduki batzuk jaso behar ditu, 43. artikulua aipatzen dituenak, eta, lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko plani dagokienez, gainera, kalifikazioa bera, plana jarraitzeko batzordearen osaketa eta sartu eta parte hartzeko erregimena eta aipatutako batzordearen esku-men eta erantzukizunak ere jaso beharko dira.

Halaber, ezartzen da enplegu eta elkartutako gizarte aurreikuspeneko planek eta bazkideek, bere sustatzaileek legitimoki hartutako erabakiaren bidez eta administrazioaren baimen egokiaren ostean, bere bazkideak eta planari lotutako aktiboak aldez aurretik onartu dituen beste BGAE batera aldatzeko ahalmena dutela. Jatorrizko erakundea aipatutako aldatzea baimentzera behartuta egongo da bere estatutu edo araudietan finkatutako epeen barruan.

X - Erakundearen gobernu-organoak (47-57 bitarteko artikulua)

BGAE guztietan batzar nagusia eta gobernu-batzordea egongo dira. Batzar Nagusia, lehenik, Erakundearen borondate soziala adierazteko organo goren da, zuzenean edo ordezkarien bidez, bazkideek, eta pertsona onuradunek egonez gero, osatuta, bere estatutuetan ezarritakoaren arabera. Batzar Nagusiak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke. Ohiko batzar nagusiaren xedea da Erakundearen kudeaketa aztertzea eta, bidezkoa izanez gero, urteko kontuak onartzea. Era berean, eguneko aztergaien bere zerrendan beste edozein gai ere jaso dezake. Gainerako batzar guztiek ezohiko izaera dute.

Batzarra baliozki eratutakoan, bi herenen gehiengoak beharrezkoak izango dira estatutuak aldatu, bat egin, federatu eta erakundea desegiteari buruzko erabakiak hartzeko. Gainerako erabakiak bertan edo ordezkaturta dauden kideen erdi gehi baten aldeko botoaren bidez hartuko dira.

Gobernu Batzordeari, berriz, erakundea administratu, zuzendu eta ordezkatzeari dagokio, eta Legearen bidez edo BGAEren estatutuen bidez batzar nagusirako erreserbatuta ez dauden ahalmen guztiak edukiko ditu. Gobernu Batzordeko kideak biltzar nagusiak izendatuko ditu Erakundearen bazkideen artean, eta proportzionalki ordezkaturta egongo dira bazkide sustatzaile eta babesleak zein arruntak, eta pertsona onuradunak Erakundearen estatutuek horrela xedatzen baldin badute. Gobernu-batzordearen erabakiak emandako botoen gehiengo sinplearen bidez hartuko dira.

XI - Ekonomia-finantzako erregimena (58-61 bitarteko artikulua)

BGAEek, ekonomia, finantza eta aktuariotzako irizpideekin bat etorritik, eta finantzako kaudimen eta orekako printzipioen barruan, mutualitate-fondoa, hornidura teknikoak, kaudimen-marjina eta araudiaren barruan erabakitzen diren gainerako fondoak eratu eta mantentzeko beharra dute.

Hornidura teknikoen zenbatekoa erabakiko du Eusko Jaurlaritzak onartutako hipotesiekin bat etorritik eta Lege honekin bat etorritik. Erregelamendu bidez aipatutako hornidura horiek kalkulatzeko metodoak, kalkuluko prozedurak eta interes-tasa teknikoa ezarriko dira. Gizarte aurreikuspeneko planetan kapitalizazioko finantza edota aktuariotzako sistemak aplikatuko dira hornidura teknikoak kalkulatzeko. Ondorioz, prestazioak zorrozki aipatutako sistemetatik etorritako kalkulura doituko dira.

Bestaldetik, administrazioko gastuak izango dira langileen gastuak, amortizazioetarako zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuengatikoko gastuak. Gehieneko ehunekoak eta gastu hauen gainerako ezaugarriak, BGAEen modalitateen arabera ezberdinak izan ahalko direnak, erregelamenduen bidez ezarriko dira eta kuota edo derramen gainean edo hornidura teknikoen gainean finkatuko dira.

Halaber, BGAEren fondoak inbertitu behar dira segurtasun, errentagarritasun, likidezia, dibertsifikazio, sakabanatze, moneta-kongruentzia eta xede sozialaren epe egokien irizpideekin bat etorritik. Inbertsioa Lege hau garatzeko eman beharreko arauzko xedapenek zehazten dituzten egitura, muga eta ezaugarriekin bat etorritik egingo da.

XII - Gainbegirapen, kontrol, ikuskapen eta interbentzioko erregimena (62-66 bitarteko artikulua)

BGAEak gainbegirapen, kontrol, ikuskapen eta, beharrezko bada, interbentzioko erregimenaren mende egotearen xedea da Lege hau eta indarreko araudia betetzen saiatzea, Entitate hauen beharrezko kaudimena zaindu eta elkartutako kolektiboaren eskubideak babesteko xedez, eta Administrazioak hauek egingo dituzten erregelamenduaren bidez ezartzen denarekin bat etorritik.

BGAEak borondatezko gizarte aurreikuspenaren arloan eskuduna den Sailaren ikuskapenari lotuta gelditzen dira, administrazio organo egoikiaren langileen bitartez. Ikuskapen hau bere egoera legal eta ekonomiko, Erakundearen jardura eta bere ordezkaritza edo zuzendaritza egiten duten pertsonen jardunari buruzkoa izango da, oro har, edo bazkideek planteatutako kontuei buruzkoa. Eginkizun honetarako izendatutako langileak agintaritza publikoaren agentetzat hartuko dira eta sekretu profesionala gordetzera behartuta daude.

Borondatezko gizarte aurreikuspenaren arloan eskuduna den sailak gobernu-organoa ordezkatzeko eta Erakunde batean esku hartzea agindu ahal izango du bere bazkide, onuradun edo hirugarrenen interesak zaintzeko, bere egonkortasuna arriskuan jartzen duten administrazio edo ekonomiako irregulartasun larriko egoerek horrela aholkatzen dutenean. Interbentzioa ere agindu ahal izango da erakundearen gobernu-organoen oinarritutako eskaeraren bidez.

XIII - Arau-haustek eta zigorrak (67-70 bitarteko artikulua)

Erakunde hauek araupetzen dituzten arauak betetzen ez dituzten BGAE, bazkide eta pertsona onuradunak, baita administrazio, kudeaketa, zuzendaritzak eginkizunak burutzen dituztenak, gobernu-organoen kideak eta likidatzaileak bezalaxe, administrazioko erantzukizunean eroriko dira, Lege honetan xedatutakoarekin bat etorritz zehatu ahal daitekeena.

Legeak arau-hausteetarako hiru larritasun maila aurreikusten ditu (oso larriak, larriak eta arinak), eta bere 68. artikuluan hauek zerrendaturik daude, baina 69.ak, berriz, maila bakoitzerako zehapen egokiak ezartzen ditu. Arau-hauste oso larriak, eta hauen artean jarduera baimenik gabe egitea, xede sozialaz kanpoko jarduerak egitea edo ikuskatzeko jarduerari uko egin edo honen aurrean erresistentzia agertzea daude, 300.000 euro arteko isunaz, Erakundearen baimena ukatuz eta jendaurrean ohartaraziz, EHAAAn argitaratuta, zigortuko dira.

Arau-hauste larriak, berriz, (eragiketen kontabilizazioari buruzko araudia ez betetzea, Administrazioari eskatutako dokumentazioa ez ematea, legez kanpoko egintzak egitea,...etab.) 150.000 euro arteko isunaz eta jendaurrean ohartaraziz, EHAAAn argitaratuta, zigortuko dira.

Arau-hauste arinak, azkenik (bazkideen informazio okerra, hilabete baino gehiagoz atzeratzea dokumentuak aurkezteko epeak betetzerakoan) 6.000 euro arteko isunaz eta pribatuan ohartaraziz zigortuko dira.

XIV . Euskadiko BGAEren Erregistroa (71. eta 72. artikulua)

Euskadiko BGAE Erregistroa erregistro publikoa da, bere ezagutzan interesa egiaztatzen dutenentzat, BGAE arloan eskumenak egotzita dituen Zuzendaritzara atxikita. Erregistroaren izaera publizitate material eta formal, legalitate eta lehentasuneko printzipioen bidez definitzen da.

Bere eginkizunen artean Lege honen eta indarreko araudiaren arabera aipatutako Erregistrora gizarte aurreikuspen, BGAE eta bere Federazioei dagokienez jo behar duten egintzak kalifikatu, liburu egokietan inskribatu eta ziurtatzea egongo da, ikuskatutako kontuen gordailua, kudeaketaren txostena eta aktuariotzako txostena jasotzea, egonez gero, BGAE eta gizarte aurreikuspeneko planen izenen gaineko ziurtagiriak ematea, bai eta erregistratutako edozein edukiren gainean ere, eta bere eskumenekoak diren gaien gaineko kontsultei erantzutea.

Halaber, modu anonimo batez, bazkideen Fitxategi Nagusiaz arduratuko da BGAE bakoitzaren bazkideen altak eta baxak barne jasotzeko, sektorearen bazkideen kopuru erreala ezagututa, bikoizketak saihestu, prestazioen kudeaketa zuzena bermatu eta planifikazio antolatuan laguntzeko xedez.



XV - Federazioak eta Euskadiko Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua (73-75 bitarteko artikulua)

BGAEek bere borondatez federazioak osa ditzakete, horien ordezkari-tza egin eta bere eginkizunak hobetzeko helburuz. Federazio hauek bere estatutuetan Lege honen arabera ezartzen denaren arabera zuzenduko dira. Arlo honetan eskuduna den administrazio organoak baimenduko ditu eta Euskadiko BGAEen Erregistroan inskribatuko dira berezko nortasun juridikoa eskuratzeko.

Era berean, Gizarte Aurreikuspeneko Euskadiko Kontseilua ere sortu ahal izango da, bere araudiaren arabera zuzenduko dena. Kontseilu hau gogetarako organo gisa egituratuko da gizarte aurreikuspena aztertu, sustatu, zabaldu eta defendatzera zuzenduta, baita aholkulari gisa Euskadiko Gizarte Aurreikuspeneko sisteman eragiten duten gai guztietan ere. Organo honek, anitza eta iraunkorra denak, erakunde publikoen ordezkariak, eragile sozialak eta ekonomikoak, gizarte aurreikuspeneko sektorea eta arlo honetako adituak barne hartuko ditu.

Aurreko kontseiluaren barruan, Euskadiko Enpleguko Gizarte Aurreikuspenaren Arlokako Batzordea sortu ahal izango da. Honek proposamen

eta irizpideak ezartzea ahalbidetuko du enpleguko gizarte aurreikuspena sustatzeko. Batzordeak hirutariko eta berdintasunezko osaera izango du, eta bere eginkizunak, osaera, egitura eta funtzionamendua erregelamendu bidez garatuko dira.

XVI - Xedapen bereziak (76-78 bitarteko artikulua)

Esaten da Eusko Jurlaritzak BGAE eta bereziki lehentasunezko Erakundeak ezartzea babesteko neurriak ezarriko dituela, hala gizarte nola administrazio, lan, teknika eta prestakuntzako eremuan. Halaber, borondatezko gizarte aurreikuspenaren kontzientzia hiritarren artean eta, bereziki, enpresa, langile eta eragile sozialen artean zabaltzera bideratutako sustatzeko ekintzak ere ezarriko dira.

Horretaz gainera, BGAEek publizitateko jarduera egiazko eta gardena egin ahal izango dute, pertsona fisikoak Erakundearekin bat egitea zuzenean edo zeharka sustatzeko helburuz, edo horren gaineko informazioa zabaltzeko xedez.

Azkenik, xedapen iragankorrek, lehenik eta behin, sei hilabeteko epea ezartzen dute, erregelamendu-garapen egokia indarrean sartzen dene-tik aurrera, Lege hau argitaratzeko egunaren aurretik eraturako BGAEek, beharrezkoa izanez gero, bere estatutuak egokitu ditzaten. Era berean, hori da ematen den epea bere sailkapenaren bestelako klase eta izaerako gizarte aurreikuspeneko planak integratzen dituzten erakundeek horiek banandu eta ezaugarri berberak dituen erakundeetan integratzeko erabaki egokiak har ditzaten. Azkenik, xedatzen da ezen, Lege honen arauzko xedapenak indarrean sartu arte, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legea (Lege berriak espresuki indargabetzen duena) garatzeko arauzko xedapenak eta gainerako araudiak indarrean egongo direla, bateraezinak ez diren bitartean.

IV. GOGOETAK

GOGOETA OROKORRAK

AURRETIKO KONTUAK

- Lehenik eta behin, gure adostasuna agertu nahi dugu Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen arau-erregulazioari Lege mai-lako testu baten bidez heltzearekin, berau koherentea baita bere garaian 2006. urteko ekainaren 6ko gure irizpenetan adierazi genuenarekin¹, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen bitartez instrumentatutako gizarte aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak araupetzen dituen abenduaren 12ko 252/2006 dekretua eta Borondatezko Aurreikuspeneko Erakundearen jarduera jakin batzuen ariketa araupetzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 dekretua, egun indarrean, izapidetzeko prozesuan, hain zuzen ere. Aipatutako irizpen horietan ohartarazten zen zalantzak zeudela aipatutako dekretuen legezko gaitasunari dagokionez, bere arau-lerruna ikusita, gizarte aurreikuspen osagarria EAeko testuinguru sozial eta ekonomiko berrirako egokitzapena burutzeko, 1983. urteko legea indarrean 25 urtez egon ondoren.

ARAUAREN BALORAZIOA

- EGAB, funtsean, Lehentasunezko Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen azpimotaren diseinuarekin bat dator Lege-aurreproiektuaren 14. artikuluan jasotako terminoetan eta honek, kudeatzen dituen aurreikuspeneko planaren edo planen ezaugarrien arabera, tratamendu ezberdindua aukera dezake eta lagundu eta sustatzeko ekintza espezifikoa jaso ditzake.
- Lehentasunezko planaren kalifikazioa, eta zeharka lehentasunezko erakundearena (aipatutako planak kudeatzeko egiturak diren aldetik), lortzeko bete beharreko ezaugarri guztiak zehatz-mehatz aztertzeari ekin beharrik gabe, Batzorde honetako kideek bere adostasuna jaso nahi dute Lege-aurreproiektuak jasotzen duen ereduaren funtsezko ardatzekin, hurrengo alderdi hauek bereziki azpimarratuta:

1- 3/2006 irizpena, ekainaren 6koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen jarduera jakin batzuen ariketa araupetzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa eta 4/2006 irizpena, ekainaren 6koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen bitartez instrumentatutako gizarte aurreikuspen osagarriaren sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak araupetzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa.

- I/11*i*
- 1) Egokitzat jotzen dugu eskatzea plan hauek besteren konturako lan profesionalaren esparruan eta partaideen artean sinatutako hitzarmen, itun eta akordio kolektiboen bitartez sortzeko, kasu bakoitzean aplikatu beharreko negoziazio kolektiboko dinamika eta bide guztiak baztertu gabe (lan arloko negoziazio kolektiboa zentzu hertsian edota Herri Administrazioaren zerbitzupeko langile funtzionario eta estatutarioentzako akordio eta itunen negoziazioa). Gainera, hedaduraz sozietate kooperatiben barruan bere bazkide langileentzat edo lan-sozietateen barruan langile jabeentzat edo interes profesionaleko elkarteetan taldekatutako langile autonomoek onartutako aurreikuspeneko planak kudeatzen dituzten erakundeak ere jasotzeak ez du indargabetzen bigarren babes maila honen oinarritzko ezaugarria, negoziazio kolektiboarekin eta beste akordio kolektibo batzuekin duen loturan zehaztuta eta, horregatik, tratamendu espezifikoa merezi duena.
 - 2) Oro har, uste dugu negoziazio kolektiboa izango dela, kasu bakoitzean, planaren oinarritzko alderdiak definitzen dituen, bere negoziatzaileen autonomiaren printzipioari jarraiki. Hala eta guztiz ere, egokitzat jotzen dugu Lege-aurreproiektuak lehentasunezko planaren kalifikazioa lortzeko gutxieneko eskakizunak definitzen dituen modua:
 - Plana potentzialki eragindako kolektiboaren gutxieneko ehuneko bat (%75) atxikitzen den eraginkortasun orokorreko hitzarmen kolektiboen bitartez edo, bestela, eraginkortasun mugatuko itun edo akordioen bitartez negoziatu izana.
 - Aurreikuspeneko planak jaso beharreko gutxieneko ekintza babesleari buruzko alderdiak eta prestazioak biziarteko edo finantzako errenten bidez ordaindu beharko diren moduarekin erregelamendu bidez finkatzen diren salbuespenak egonda, sortutako errenten zenbateko urriaren arabera.
 - Eskubide ekonomikoetarako aurreikusitako tratamendua, eta bereziki kontingentzia egokia gertatu aurretik erreskaterik ez

egotea eta finkatutako eskubide ekonomikoak lehentasunezko kalifikaziorik ez duen aurreikuspeneko beste erakunde bati transferitzearen ezinezkotasuna, lan-harremana edo baliokidea bukatu edo onuradunentzat prestazioa sortutakoan.

- Ekarpen partekatuei dagokienez, halaber, ados ere gaude aurreproiektuaren 14.2 artikuluan, Legea indarrean sartu aurretik negoziatutako akordioen ondorioz, langileen borondatezko ekarpenen erregimen bat aukeratu duten planetarako ezarritako salbuespenezko erregimenarekin. Uste dugu erabaki honek autonomiaren printzipioa errespetatzen duela enpleguko aurreikuspeneko ereduaren hasierako definizioan, etorkizunean erregimen bateratua ezartzea baztertu gabe.

1/11 

- 3) Lehentasunezko Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen kudeatzeko egiturei eta, espezifikoki, nahitaezko organoei dagokienez, EGABk egokitzat eta negoziazio kolektibo babesteko tresnaren loturarekin koherentetzat jotzen du plan bakoitzerako bazkide babesleek eta bazkide arruntek osatutako berdintasunezko osaerako organo kudeatzaile bat sortzeko exigentzia, eta ados dago honen barruan erabakiak hartzeko erregimena bere kideen gehiengo sinpleen, edo salbuespenezko kasuetan gehiengo indartuen (2/3), irizpide orokorraren mende gelditzearekin. Zentzu horretan, baloratzen dugu pertsonak edo buruek bozkatzeko irizpide hau Lege-aurreproiektuak aipatzen dituen Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen gobernu-organo guztietarako oro har ezarritakoa izatea.
- Batzorde honek, berriz, ohartarazten du zenbait kasutan arazo formalak sor daitezkeela lehendik dauden BGAEen estatutuak Lege berriak sartutako eskakizunetara egokitzeko prozesuan. Zentzu horretan, ulertzen du 51.2 artikuluan oro har estatutuen aldaketetarako ezarritako gehiengo indartuen irizpideak, kasuren batean, lege-egokitzapena, zorrozki nahitaezkoa dena, eragotzi ahal izango lukeela, Lehen Xedapen Iragankorrean finkatutako epearen barruan. Kontu honi dagokionez, uste dugu estatutuen aldaketa egokia partaideen boron-

datezko aukera izan beharrean epe jakin batean bukatu beharreko lege-eskaera den kasuetan aipatutako gehiengo indartuen erregimenerari espresuki salbuespena gaineratzea bidezkoa izango litzatekeela.

- Bestaldetik, EGAB, Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua sortu eta abiaraztea erabakiz gero (75.1 artikulua), aurreko Kontseiluaren barruan, nahitaezko izaeraz eta ez hautazko izaera hutsaz 75.2 artikuluan jasota dagoen bezala, Euskadiko Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Batzorde Sektoriala ere sortzea xedatzearen alde dago. Aurreikuspen osagarriaren segmentu honen berezitasunak ikusita, gure iritziz, justifikaturik egongo litzateke aipatutako Batzordera, babesteko bigarren mailaren garapenari dagokionez, oro har Kontseiluari agindutako eginkizun guztiak edo batzuk eramatea.
- Azkenik, 76. artikuluan zehazki, borondatezko gizarte aurreikuspenaren kontzientziatzea zabaltzeko sustapeneko neurriak eta bereziki Lehentasunezko Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetarako inplementazioa babesteko neurriak bereziki hartuko direla iragartzearekin ados gaude, izan ere, konpromiso horrek babesteko bigarren mailarekin lotutako gizarte aurreikuspen osagarriaren mota espezifikoaren aldeko aukera benetan adierazten du. Hala eta guztiz ere, neurri hauek ez daude definituta Lege-aurreproiektuaren testuan, hortaz, erregelamendu bidez hauek zehazteak, bere hedapen eta intentsitateari eta hauekin lotutako bestelako esparruekin duten loturari dagokienez, elkarrizketa espezifikoko prozesu bat jarraitu beharko luke.

Izaera orokorreko gogoetak bukatuta, Euskadiko EGABk beharrezkotzat jotzen du hurrengo gogoeta espezifikoak ematea:

GOGOETA ESPEZIFIKOAK

8. artikulua. Kontzeptua eta eremua. 58.2. artikulua. Funtsak eta finantza-bermeak.

Errakuntzarik egon ez dadin, Kontseilu honek gomendatzen du Lege aurreproiektuaren artikulua horietan, “kapitalizazioari” erreferentzia egiten

zaionean, berariaz adierazita egotea kapitalizazioak banakoa izan beharko duela. Gogorarazi behar da kapitalizazio kolektiboa debekatuta dagoela Estatuko Aurreikuspeneko Mutualitateetan zein Pentsio Planetan”.

18.2 artikulua. Onuradunak izendatzea heriotzaren kasuetan

Lege-aurreproiektuak xedatzen du *“onuraduna izendatuta ez badago, erakundearen estatutu edo araudiek ezarritako lehentasunari kasu egingo zaiola”*.

Uste dugu idazketa hau ez dela oso egokia, izan ere, aipatutako lehentasuna BGAEen prestazioen araudian ezartzen da eta ez bere estatutuetan, hortaz, testua zentzu horretan zuzentzea iradokitzen dugu.

I/11 

19. artikulua. Bazkideen eskubideak

Gure iritziz artikulua honetan erakunde kudeatzaileek gizarte aurreikuspeneko planen partaide eta onuradunei, aldian-aldian, bere eskubide ekonomikoen egoera eta bilakaerari buruzko informazioa, baita hauengan eragin dezaketen bestelako kontuak ere, bereziki araudien aldaketak, planaren zehaztapenen aldaketek, funtzionamenduko arauenak,... emateko betebeharra gaineratu beharko litzateke. Zentzu horretan, honakoa esaten duen atala sartzea proposatzen dugu:

“Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Erakundeek, aldian-aldian, bazkide osoen eskubide ekonomikoen gaineko informazioa, baita Aurreikuspeneko Planaren espezifikotasunetan eta funtzionamenduko bere arauetan aldatuta esanguratsuak dakartzan beste kontu batzuei buruzkoa ere, eman beharko dute.”

24.2 artikulua. Kontingentzia pertsonalak

Euskadiko EGABk uste du artikulua honen bigarren atalean jasotako kontingentziak ez daudela lotuta Gizarte Aurreikuspen Osagarriarekin eta honen berezko xedetik desbideratzen direla, erretirorako osagarria edukitzea alegia, betiere beste kontingentziaren bat ez dagoenean (ezintasuna, heriotza,...etab.).

V. ONDORIOA

Euskadiko EGABk Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Aurreproiektuari buruzko izapideak egokitzat jotzen ditu, aholkularitzako organo honek egin dituen zehaztapenak eginda.

Bilbon, 2011. urteko urtarrilaren 21ean

O.E.: Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao, Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Guitrobarras Comunicación

Inprenta: Inprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-210-11